



UGAO-MIRABALLESKO
“PUNTU BELTZEN” MAPA
2017KO EKAINA

ACUÑA GARCÍA, SARA MELISSA
GONZÁLEZ DOMÍNGUEZ, SARAY

AURKIBIDEA



	Orrialdea
1. SARRERA.	2
2. "PUNTU BELTZEN" ZERRENDIA.	3
2.1. San Bartolome 16. zenb. – DOMIBERIA.	3
2.2. Goikirira igoera.	3
2.3. "El Jaro" kiroldegitik jaitsiera.	4
2.4. El Jaro pasealekua 10. zenb.	4
2.5. RENFE geltokia.	4
2.6. Bide-Zahar 1 – 11 zenb.	5
2.7. Bide-Zahar Etxartea 1 – 5 zenb.	5
2.8. Dantza eskola.	5
2.9. Ikastola eta bidegorria.	6
2.10. Zollorako errepidea.	6
2.11. Udiarraga 19 – 59 zenb. etxarteak.	6
2.12. Leitokiko merenderoa.	7
2.13. Futbol zelaia eta parkea.	7
2.14. Hilerria eta aparkalekua.	7
2.15. Udiarraga 1 B zenb. ondoko aparkalekua.	8
2.16. Psikomotrizitate parkea.	8
3. GAUR EGUN...	9
5. "PUNTU BELTZEN" MAPAREN ERANSKINA.	10
4. BIBLIOGRAFIA.	12

SARRERA

Ugao-Miraballesko udalerrria inguru menditsuan dago, Nerbioi ibaiak banatuta. Beraz, ez da harritzekoa eraikinek landaretza ugariarekin muga egitea, eta ikuspen txikiko leku asko egotea.

Ugaotar askok gustuko dute kirola egitea eta paseatzea, gauez zein egunez, eta horretarako ondorengo lekuak erabiltzen dituzte: Nerbioi ibaia eta Usila auzoa.

Alde batetik, Nerbioi ibaiaren bazterrek, pertsonak zein txakurrak bertatik igarotzea ahalbidetzen dute. Iaz jasotako informazioari jarraiki, inguruan dagoen landaretza altuak eragiten duen ikuspen falta eta argiztapen gabezia azpimarratzen da.



Bestalde, Usila auzoa Industrialdeak osatzen du ia bere osotasunean, eta horrez gain kale nagusi bi eta etxebizitza gutxi batzuk ere badaude. Gauez entzuna eta ikusia izateko zailtasunak daude, eta horrek segurtasun eza eragiten du herritarrengan.



UGAO “PUNTU BELTZEN” ZERRENDAA

Anne Michauden arabera, “puntu beltz” edo leku kritiko batek honako printzipio hauek izan behar ditu kontuan emakumearen segurtasunaren ikuspuntutik:


- seinalizazioa: non dagoen eta norantz joan nahi duen jakin ahal izatea.
- ikuspena: berak besteak ikusi eta besteak bera ikusi ahal izatea.
- Pertsonak egotea: berak besteak entzun eta besteak bera entzun ahal izatea.
- zaintza formala eta laguntza eskuragarri izatea: ihes egin eta laguntza eskuratu ahal izatea.
- planifikazioa eta lekuen mantentze-lanak: inguru garbi eta atsegin baten bizi ahal izatea.
- komunitatearen parte-hartzea: taldean jardutea.

Jarraian, herritarrek “puntu beltz” gisa identifikatu dituzten 16 lekuak aipatuko dira, herritarren pertzepzioekin eta hobetzeko proposamenekin batera.


1. San Bartolome 16. zenb. – DOMIBERIA.




- 16. zenbakitik DOMIBERIA S.L.U.ra arte.
- Diagnostikoa: argiztapen txikiak eta zokoek ikuspen egokia eragozten dute.
- Proposamena: argiztapena hobetzea.




2. Goikirira igoera.



- Arana eta Lupardotik San Romanera arte.
- Diagnostikoa: segurtasun gutxiko gunea, batez ere gauez, bertako zoko ugariengatik, argiztapen eskasagatik eta oinezko gutxi ibiltzen delako.
- Proposamena: argiztapena hobetzea.



3. "El Jaro" kiroldegitik jaitsiera.




- Espaloirik ez dagoen arren, El Jarotik datozen oinezkoak Udiarragatik jaisten dira.
- Diagnostikoa: gauez segurua ez den gunea, ikuspena zailtzen duten zokoekin eta argiztapen txikiarekin.
- Proposamena: argiztapena hobetzea.




4. El Jaro pasealekua 10. zenb.



- 10. zenbakiko arkupeak.
- Diagnostikoa: segurtasun gabeko gunea, ez da nahikotzat jotzen ezarritako argiztapena. Horrez gain, zoko ugari daude.
- Proposamena: argiztapena hobetzea edo gunea hesi batekin ixtea.



5. RENFE geltokia.



- Sarrerako eskailerak eta erdiko nasara sartzeko pasabidea.
- Diagnostikoa: eskaileretako zein pasabideko argiztapen eskasak, eta sarreran dagoen ikuspen murrizak "puntu beltz" bilakatzen dute geltokia.
- Proposamena: argiztapena hobetzea eta ispiluren bat gehitzea.
- Gaur egun: lanak egiten ari dira. Lanon bidez igogailua ezarri, sartzeko arrapala eraiki, nasak goratu, eta pasabidea eraberritu eta argiztatuko da.

6. Bide-Zahar 1 - 11 zenb.



- Harrizko horma dagoen tartea.
- Diagnostikoa: hormak nabarmen murrizten du ikuspena, eta kalearen diseinuak iluntasun sentazioa areagotzen du.
- Proposamena: argiztapena hobetzea.

7. Bide-Zahar Etxartea 1 - 5 zenb.



- "L" bat osatzen duten etxarte bi, haietako bat estalia.
- Diagnostikoa: herritarren bati baino gehiagori mesfidantza eragiten dioten zokoak eta argiteria eskasa.
- Proposamena: argiztapena hobetzea eta ispiluak ezartzea.



8. Dantza eskola.



- Udaletxearen atzeko aldea da, errekarekin paraleloan.
- Diagnostikoa: zoko ugari eta argiztapen gutxi.
- Proposamena: argiztapena hobetzea, espaloia konpontzea eta ispiluaren bat ezartzea.



9. Ikastola eta bidegorria.



- Ikastola eta inguruko bidegorriaren zati bat.
- Diagnostikoa: jende gutxi dabilen lekua, eta gauez argiztapen eskasa duena.
- Proposamena: argiztapena hobetzea.




10. Zollorako errepidea.




- Zollora doan errepideari jarraituz Iturrigorrialderako igoera da.
- Diagnostikoa: urrun dagoen gunea da, gutxi urbanizatua, ikuspen argiztapen mugatua duena.
- Proposamena: argiztapena hobetzea.


11. Udiarraga 19 – 59 zenb. etxarteak.



- Udalerriko alde zaharrean, errekarat jotzen duten 6 etxarte estu dira. Egoera txarrean dituzte fatxadak.
- Diagnostikoa: argitasun gutxi daukate.
- Proposamena: argiztapena hobetzea, fatxadak konpontzea eta tonu zuriz margotzea.



12. Leitokiko merenderoa.




- Leitokiko gainean kokatuta, sarbide bi ditu: hilerritik edo ikastolatik.
- Diagnostikoa: urbanizatu gabeko gunea, zokoekin eta argiztapen eskasarekin. Herritarren artean kezka handiena eragiten duen puntuetako bat.
- Proposamena: argiztapena hobetzea.



13. Futbol zelaia eta parkea.




- Futbol zelaia eta ondoko parkea inguratzen dituen gunea.
- Diagnostikoa: zokoek ikuspena mugatzen dute, eta gauez segurtasun ezaren sentrazioa areagotzen da.
- Proposamena: argiztapena hobetzea.



14. Hilerria eta aparkalekua.



- Merenderoarekin eta errekararekin paraleloan doan bidegorriarekin mugatzen du.
- Diagnostikoa: zokoak dituen gunea, argiztapen eskasarekin.
- Proposamena: argiztapena hobetzea.




15. Udiarra 1B zenb. ondoko aparkalekua.




- 1B eta 1BIS B atarien ondoan, antzinako harrizko iturrian.
- Diagnostikoa: hainbat zoko dituen hiri-inguruko gunea. 22:00etatik aurrera, entrenamenduak amaitzen direnean, argiztapen eskasa dago.
- Proposamena: argiztapena hobetzea.

16. Psikomotrizitate parkea.



- Igerilekuen ondoan.
- Diagnostikoa: kantoia egiten duen parkea, errekarekin paraleloan, argiztapen eskasa eta ikuspena eragozten duten hainbat zoko dituena.
- Proposamena: argiztapena hobetzea.




GAUR EGUN...

Usila auzoko Barrena kalea Z/G helbidean, 10 zenb. "puntu beltzaren" aurrean, Ugao BHI eraikitzen ari dira. 2016-2017 ikasturtera arte, Ugaoko nerabe gehienak Leitoki HLHIn ikasketak amaitu ostean Arrigorriaga BHira joaten ziren ikasketekin jarraitzera. Ikastetxea kokatuko den lursaila antzinako irristatzeko eta bizikletentzako parkea da. Kontuan izanik industrialdea eta errepide autonomikoa hurbil dituela, komeniko litzateke arreta berezia jartzea eraikinera sartzeko bide desberdinen argiztapenean.



ERANSKINA - “PUNTU BELTZEN” MAPA





BIBLOGRAFIA

- Ugao-Miraballesko mapa toponimikoa (2011).
- Portadako argazkia Todopueblos webgunetik eskuratua.
- Michaud, Anne (2002). *Pour un environnement urbain sécuritaire. Guide d'aménagement. Programme Femms et Ville de la Ville de Montreal.*
- Ugao-Miraballesko Udala (2016). *Ugao-Miraballesen genero ikuspegitik egindako hirigintza txostena.*
- Ugao-Miraballesko Udala (2014). Informazio-liburuxka *Elkarbizitzarako kanpaina. Txakurrak edukitzeko elkarbizitzarako arauak eta Ugao-Miraballesko guneen mapa.*